



ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZAREN INFORMAZIO- OHARRA, DIRU-LAGUNTZEN PROZEDURETAN ALARMA-EGOERAN ETENDA EGON DIREN EPEEI BURUZKOA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren eskumenetako bat laguntza-deialdi hauek kudeatzea da:

- Etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko laguntzen programa (Renove programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.
- Udalenzako, tokiko erakunde autonomoentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, irisgarritasun-planak egin edo eguneratzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemen ezarpena, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko laguntzak, ERAIKAL programa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko eta hedatzeko laguntzak.

2020ko martxoaren 14an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena.

Hirugarren Xedapen Gehigarriak honako hau ezartzen du: "Sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epe-mugak eta epeak eteten dira. Epeen zenbaketari errege-dekretu honek edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean ekingo zaio. "

2020ko maiatzaren 23an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Diputatuen Kongresuaren 2020ko maiatzaren 20ko Ebazpena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzea baimentzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena.

Hamargarren atalak honako hau zehazten du: 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetu egingo da administrazio-epeak eteteari buruzko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria. Egun horretatik aurrera, etendako epeen zenbaketari berrekingo zaio, edo berriz hasiko da, alarma-egoera eta haren luzapenak indarrean dauden bitartean onartutako lege-mailako arauen batean hala aurreikusi bada.

Alarma-egoeraren ondorioz dauzkaten epe berriak **2020ko ekitaldiari dagozkion egikaritze- edo justifikazio-epeak dituzten laguntza-deialdien** onuradun guztiei helarazteko, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza honek honako epeen taula hau egin du:

DEIALDIA	DEIALDIAN JASOTAKO EPEAK	ALARMA-EGOERAREN ONDORENGO EPEAK
RENOVE PROGRAMA 2017	Obrak exekutzatzeko epea: 2020ko uztailearen 31	Obrak exekutzatzeko epea: 2020ko urriaren 9a
	Justifikazio epea: 2020ko uztailearen 31	Justifikazio epea: 2020ko urriaren 9a
IRISGARRITASUNA 2018 PROGRAMA	Obrak amaitzeko epea: 2020ko urriaren 31	Obrak amaitzeko epea: 2021eko urtarrilaren 15a
	Justifikazio epea: 2020ko azaroaren 30a	Justifikazio epea: 2021eko otsailaren 15a
IRISGARRITASUNA 2019 PROGRAMA	Planak idazteko epea: 2020ko azaroaren 15a	Planak idazteko epea: 2021eko urtarrilaren 29a
	Planak justifikatzeko epea: 2020ko abenduaren 1a	Planak justifikatzeko epea: 2021eko otsailaren 16a
ERAIKAL PROGRAMA 2018	Jarduerak burutzeko epea: 2020ko urriaren 30a	Jarduerak burutzeko epea: 2021eko urtarrilaren 15a
	Jarduerak justifikatzeko epea: 2020ko azaroaren 15a	Jarduerak justifikatzeko epea: 2021eko urtarrilaren 29a

Nolanahi ere, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak **gomendatzen** die lehen aipatutako edozein laguntza-deialdiren onuradun guztiei, baliabideen erabilera eraginkorra egin ahal izateko, **2020ko ekitaldi honetan diruz lagundutako obra, proiektua, plana edo jarduera gauzatzeko, amaitzeko eta justifikatzeko ahalegina** egin dezatela, deialdi-aginduetan ezarritako baldintzetan.